



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2022KO MAIATZAREN 30EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko maiatzaren 30ean, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: M^a Mar Ansorena, Ricardo Arangoa, Xabier Azpiroz, Julen Beunza eta Santos Etxegia.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Apirilaren 28ko ohiko batzarreko akta eta maiatzaren 13ko ezohikoa emailaz helarazi zaizkie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

2.- Alkate ebazpenak

- 2022/37 alkate ebazpena M^a Luisa Goicoecheak egindako zaharberritzeko eskaera, Erbitiko 7. Poligonoko 7. Lursailean dagoen etxeko teilatua berritzeko, obrarako 1.909,03 eurokoa eta obra bukaerako dokumentazioaren arabera EIOZren behin betiko likidazioa.

- 2022/38 alkate ebazpena onartuz Kasimir Ikatzategui Vilagarciak aurkeztutako aitorpen ardurtsua eta memoria teknikoa, Igoako 9. Poligonoko 213. Lursailean dagoen etxebizitzarako autokonsumorako eguzki plakak jartzeko.

-2022/39 alkate ebazpena onartuz Eburne Sanzo Madariagak aurkeztutako aitopen ardurtsua Aizarotzko Erdiko Karrika 10 behea B dagoen etxebizitzarako komuna berri eta berokuntza sistema beheko suarekin lotzeko.

- 2022/40 alkate ebazpena baimena emanaz Basandereok Elkarteari, udaleko eta Aizarotzko herrikoetxeko aterpeetan bi postontzi jartzeko, bertan, emakumeek idatzitako liburuak eskaintzeko, liburutegi moduan.

- 2022/41 alkate ebazpena Onartzea Maite Irigoyen Arribillagak egindako eskaera eta hortaz 2022ko abuztuaren 15ean mozten zen alokairu kontratua beste urte baterako luzatzea, hots 2023ko abuztuaren 15a arte.

- 2022/42 alkate ebazpena Baimena emanaz Aralar Musika Eskolari, eskolako patioa erabiltzeko ekainaren 15ean arratsaldeko 15:00etatik aurrera musika emanaldia egiteko. Eguraldi txarra egingo balu Apeztegiberriko ganbaran dagoen areto nagusia erabiliko litzateke.

-2022/43 alkate ebazpena Basaburuko Udaleko langileen lanpostuen eskaintza publikoa onartuz eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin aginduz.

- 2022/44 alkate ebazpena onartuz, Jose Antonio Ochotorena Arangoa 15781028S NAN zenbakia duenari aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.

- 2022/45 alkate ebazpena baimena emanaz AEK Korrika Elkarteari Abuztuaren 13an, Jaunsaratsen dagoen Basaburuko udal polikiroldegia erabiltzeko, barnetegi ibiltariaren barruan lo egin eta jateko toki bezala

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

3.- Aizarotz kontzeju izateko prozedurari hasiera ematea.

Alkateak azaltzen du, Maiatzaren 13ko ezohiko batzarrean onartu zen kontzeju izateko prozeduran atzera egitea eta erabaki hau Nafar Gobernura helarazi zen. Orain beraiek maiatzaren 24ko 307/2022 ebazpen bidez onartu dute erabaki hau prozedura berriro hasteko aukera emanaz.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den akordioa hartzen dute:

- **Hasiera ematea Aizarotzko herria kontzeju izaera izateko prozedurari eta hainbat aholkularitzari eskatzea tramitaziorako beharrezkoak diren txosten ekonomiko eta juridikoak egiteko aurrekontuak.**

4.- Mozioak.

Ez dago.

5- Batzordeen informazioa.

Ez dago.

6- Informazio orokorra.

- CHE, Aizarotzko estankean udan betetzeko baimena jaso da , 25 urteko iraungitzea izango da eta zehazten da ze baldintzetan bete behar den, erreka ura kontutan hartuz, gehienez ere 5 litro segunduko ura erabili behar da.
- Tokiko Azpiegituretarako Plana. Maiatzaren 30ean argitaratu da legea garatzen duen foru agindua eta hortaz inbertsioak eskatzeko epea ireki da, memoria teknikoak eta bestelakoak. Kontzejuei informazio hau helarazi zaie.
- Ingurugiro Departamentutik jasotako jakinarazpena irakurtzen da, bertan adierazten dute Beramendiko saneamendu sarean erretilan ur zikinak ikusi dituztela eta ondoan dagoen abere ustiapenetik zetorrela. Udalak honen inguruan, kontzejuari jakinarazi zion egoera ustiapeneko jabeari ohartarazteko, isurketa gehiago egin ez ditzan. Erantzun hau bideratuko da hortaz Ingurugiro Departamentura, hots kontzejuaren bidez ustiapenaren jabeari jakinarazi zaiola Ingurugiro Departamentuak egindako ikuskapena eta isurketa eteteko eskaera egin.

7. Erreku-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:05 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.